BIO orokorra

Programatzaile, sustatzaile eta komunikabideentzako baliabideak

AIKO Taldearen jarduerak programatzeko eta komunikatzeko beharrezko material guztia hemen eskuragarri.

eus

AIKOPEKO

AIKO Taldearen proiektu berria

AIKOPEKO, Argi Zameza (kantua eta panderoa), Aitor Furundarena (kantua eta akordeoia) eta Sabin Bikandi (danbolinteroa) elkartzen dituen proiektu berria da. Hirurok ere AIKO Taldeko kideak dira, baina oraingoan formatu txiki, arin eta gertuko batekin datoz.

Talde hau musika eta dantza edozein herri, auzo edo ospakizunetara eramateko asmoz jaio da, beti AIKOren izatearen muinari eutsiz — dantzarako musika, freskotasunez, kalitatez eta publikoarekin konplizitatez egina.

AIKOPEKO-n kantua izango da protagonista nagusietako bat, Argiren ahotsa akordeoiarekin eta danbolinarekin uztartuz. Horrela, askatasunez eta konplexurik gabe jositako errepertorioa eskaintzen dugu: gure tradizioko jota eta dantza jauzietatik (mutxikoak) hasi eta boleroak, tangoak edota habanerak bezalako Hego Amerikako erritmo klasikoetara iritsiz.

AIKOPEKO-ren eskaintza jai partekatua da: musika, kantua eta dantza modu naturalean batzen dira, publikoari parte hartzera, mugitzera eta gozatzera gonbidatuz.

Eta hortarako formato ezberdinetako eskeintzekin dator AIKOPEKO:

Dantzaldi/erromeria

Argi, Aitor eta Sabinek, urteak daramatzate dantzarako musika egiten, jotzen eta sortzen. Hirurak elkarturik barriz, dantzarako errepertorio bereziki zabala osotu dute:

-jota eta porruak: pandero eta kantu hutsean, albokarekin, dultzainarekin, txistuarekin, akordeoiarekin... eta beti kantua lagun koplen tartekoan.

-polkak, txotisak, mazurkak, baltsak, ingurutxoak...

-dantza jauzien lehen grabaketa integrala ere egin zuten agortuta dagoen URRASKA, CD bikoitz, DVD eta liburuarekin, zein, erreferente bat bilakatu den dantza sektorean.

-"betiko" bikote dantzak, bereziki ameriketatik, itsasotik buelta egin zuten eta gureak egin ditugun habanera, rantxera, bolero eta abarrekin.

Dantzaldiak gidatuak izan daitezke edo besterik gabe dantzarako musika egokia eskeini plaza dantzan jartzeko.

Aukeran, dantzaldiaren aurretik, dantza tailer edo eskola bat ematea, oinarrizko urratsak eta azaltzeko, eta bide batez, partehartzaileak dantzara animatzeko.

"Kostaldeko koplak" kantaldi ikuskizuna

Argi Makuesa da, Elantxobekoa, eta itsaoari begira eta itsasoak ekarriko kantuz inguratuta hasi da kresalaren usai gozoz. "Kostaldeko koplak" kantua sentitzeko modu bat partekatzeko eskeintza bizi bat da, gure kantuak, barruan daramatzagun kantuak, gure etxeko soinuak... batzutan tango erritmoarekin, eta besteetan pasodoble airez. Zaharra berri, ala beti barri den musika klasikoa guretzat.

"Kostaldeko koplak" neurri ezberdinetara egokitzen den ikuskizuna da, taberna eta pub tamainako geletatik hasi eta antzerki eta areto handietara edo herriko plazetara udako jaietan.

Dantzapoteoa/kantubira

Dantzapoteoa izena jarri zion norbaitek eta guretzat baliogarria da, baina kantubira ere esan diezaiokegu edo kantaldi edo dantzaldi ibiltaria. Kontua da gure kantua eta musika herri ingurura eramatea jai giroa sortu eta animatzeko. Formatu akustiko soil eta betikoan egin dezakegu, eta nahi izanez gero, baita ere soinu ekipo mugikorra erabiliz.